

# LENIN eta IRAULTZA SOBIETARRA

Irakasgaia: Pentsamendu Politikoaren Historia  
**Ikaslea: Iker Iraola Arretxe**  
Soziologia Lizentziatura, 1.go maila  
2002ko ekainaren 4an

## Sarrera

Lan honetan Vladimir Illich Ulianov *Leninen* bi lan aztertzen dira. Batetik, *¿Qué hacer?* liburua eta, bestetik, *Las tareas del proletariado en la presente revolución. Las tesis de Abril*. Lehena 1902. urtean idatzi zuen eta bigarrena, berriz, 1917an. Lenin (1870-1924) eragin handiko pertsonaia historikoa dugu eta Errusiako Langile-Alderdi Sozialdemokratako talde marxista iraultzailearekin (boltxevikeak) batera, munduko errealitatea eraldatuko zuen iraultza baten buru izan zen: Iraultza Sobietarra. Bertan, komunismoa errealitate bihurtu zuten, edo bilakatzen saiatu ziren, munduko herrialderik handienean. Sistema sozialista horrek, eraldaketa askorekin bada ere, Sobiet Batasunean XX. mendeko bukaera arte iraun zuen, bere eragin zuzena Ekialdeko Europako herrietara zabalduz. Leninek sozialismoaz egindako irakurketak, bestalde, eragin handia izan zuen mundu osoko komunista eta iraultzaile askorengan eta, Karl Marxen ekarpenekin batera, marxismo-leninismoa sortu zen.

Lan honetan, bestalde, bi idazlan garrantzitsu hauen laburpen bat burutuko dut, hauetan agertzen diren ideia zein kontzeptu nagusiak azaldu asmoz. Lan honen helburua, beraz, ez da laburpen zehatz bat egitea, laburpenaren bidez ideia garrantzitsuenen azalpena burutzea baizik. Horrexegatik, laburpenean zehar zenbait aipamen edo iruzkin ager daitezke. Azkenik, liburu bakoitzaren atalean azaltzen diren aipamenak liburu horrenak dira.

## “¿QUÉ HACER?”<sup>1</sup>

Leninen liburu hau bost kapitulutan (honi ondorioak gehituz) zatiturik dago. Kapitulu bakoitzaren barnean, era berean, azpituluen bidez atal desberdinak aurkitzen ditugu. *¿Qué hacer?* orokorrean Errusiako mugimendu sozialdemokrata<sup>2</sup> boltxeismoak defendatutako bideetatik zuzentzeko lana da, langile mugimenduaren baitan beste korrante batzuek ere indarra zuten aldi batean. Honela, mugimendua indartzeko eta ideologia sozialistak ematen dion papera behr bezala betetzeko hainbat irizpide planteatzen dira.

**Lehenengo kapitulan** (*Dogmatismo y “libertad de crítica”*) mugimendu sozialdemokratako talde batzuek marxismoa kritikatzeko duten eskubidea aldarrikatzea kritikatzeko da. Honen atzean, sozialdemokrazia iraultzailea erreformismo burgesarekin ordezkatzeko saiakera ezkutatzen da Leninen ustez. Hau da, marxismoaren oinarritzko kontzeptu batzuk (hala nola proletargoaren diktadura, klaseen arteko borroka...) zalantzan jartzen dituzte kritika askatasuna aldarrikatzen duten horiek. Sozialismoaren joera *kritiko* hau, beraz, oportunismo forma berri bat baino ez da, planteamendu burgesak ezkutatzen dituen. *Kritika askatasun* honen defendatzaile nagusia *Rabócheie Dielo*<sup>3</sup> aldizkaria da (Atzerriko Sozialdemokrata Errusiarren Batasuneko organoa), ezinbestekotzat ikusten baitu kritikarako eskubide hau Errusiako sozialisten batasuna lortzeko. Leninentzat hau ezinezkoa da, aldizkari horrek ordezkatzeko duen sektorearen posizio politikoak sozialismoari traizio egitea suposatzen baitu.

Leninen aburuz, Errusiako langile mugimenduaren berezitasuna oso heterogeneoa izatea da; hau da, bere barnean elementu marxista erradikaletatik demokrata burgesetaraino egotea. Egoera honetan, haustura eragoztezina bihurtu zen, eta elementu moderatuek indarra hartu zuten (kritikarako askatasun horren pean kokatuz). Sozialdemokraten eginbearra korrante horren aurka borrokatzea da. Leninek lotura ikusten du elementu moderatu hauen eta *ekonomismo* delakoaren artean.

---

<sup>1</sup> LENIN, V.I., *¿Qué hacer?*, Marxists Internet Archive, 2000

<sup>2</sup> Leninek *Las tesis de Abril*-en Errusiako Alderdi Sozialdemokrata izenez aldatzeko proposana egin zuen, Alderdi Komunista proposatuz izen bezala. Gaur egun historikoki komunista (marxista) bezala ulertzen ditugun ikuspuntuak, garai hartan sozialdemokratak izendatzen zituzten Errusian, ez dugularik nahastu behar gaur egun *sozialdemokrata* izendatzen ohi den taldearekin.

<sup>3</sup> Aldizkari hau oso gogorki eta askotan kritikatzeko du Leninek obra honetan. Aldizkari hau nazioarteko sozialdemokraziaren joera oportunistaren ordezkari hartzen du.

Ekonomismoa borroka sindikalaren (*tradeunionista*) parekoa da, hots, langileen borroka lantegiaren eta hobekuntza ekonomikoen eremura mugatzea, borroka politikoa baztertuz. Bai joera *kritikoa* mantentzen dutenek eta bai *ekonomistek*, bat egiten dute marxismoaren oinarritzko kontzeptuen aurka, eta askotan elementu berdinak dira.

Egoera honen aurrean, borroka teorikoaren beharra azpimarratzen du Leninek (Engelsen ideietan oinarrituz). Horrela, kontuan izan behar da Alderdi Sozialdemokrata oraindik bere hastapenetan dagoela, mugimendu sozialista berez nazioarte mailakoa dela (beste herrietako bizipenak baliagarriak direlarik) eta Errusiako sozialdemokraziak zailtasunik handienak dituela herrialdearen egoera dela eta. Hau guztia kontuan izanez, beraz, borroka teorikoari garrantzi berezia eman behar zaio, alderdiak bere papera betetzeko teoria indartsu eta sustraitu bat behar baitu. Paper berezia eskaintzen dio Leninek langile mugimendu errusiarrari: “*El cumplimiento de esta tarea (...) convertiría al proletariado ruso en la vanguardia del proletariado revolucionario internacional*”.

**Bigarren kapitulu**n (*La espontaneidad de las masas y la conciencia de la socialdemocracia*) bat-bateko borroka (edo borroka espontaneo) eta ekonomismoaren arteko harremana aztertzen da. Leninen aburuz, “*el elemento espontaneo no es sino la forma embrionaria de lo consciente*”. Hortaz, gakoa langileek kontzientzia sozialdemokrata irmo bat izatean datza. Horregatik, langileen lehenengo grebak oraindik bat-batekotasunaren azaleratze bat ziren –kontzientzia horren jabe ez zirelako–, nahiz eta eboluzio bat suposatu aurreko ekintzekiko (matxinatzeak, mendekuak...). Ondorioz, Errusian sozialdemokraziak izandako garapen teorikoak ez du harreman zuzenik langile mugimenduaren bat-bateko igoerarekin.

Bat-bateko borrokaren aldeko joera bereziki argia da borroka ekonomikoaren aldekoengan. Ekonomistek hasieratik langileen borroka espontaneo goraipatu zuten. Leninentzat, hautu hau burgesiaren interesen alde egitea da, errotikako aldaketa soziopolitiko atzeratzen baitu borroka sindikalean eroriz. Eta borroka tradeunionista hau ez da sozialdemokraten eginbehar nagusia izan behar: “*Todo lo que sea rendir culto a la espontaneidad del movimiento obrero, todo lo que sea aminorar el papel del elemento consciente, el papel de la socialdemocracia, significa acrecentar la influencia de la ideología burguesa entre los obreros*”. Sozialdemokraten eginbeharra, beraz, bat-batekotasuna borrokatzea da (eta beraz, ekonomismoa ere bai), ideologia sozialistaren

alde ekiteko modu bakarra baita. Joera *berriaren*<sup>4</sup> aurka, sozialdemokraziak bere lan teorikoa zein politikoa eta antolakuntza azkartu behar du.

**Hirugarren kapitulu**an (*Política tradeunionista y política socialdemócrata*) ekonomisten eta sozialdemokraten jarduera eta planteamenduen desberdintasunak aztertzen dira hainbat aferatan zentratuz.

Langileen borroka ekonomikoa salaketa ekonomikoekin (paskinak...) hasi zen, baina borroka hau, esan bezala, ez da sozialdemokrata, sindikala baizik<sup>5</sup>. Ondorioz, benetako borroka sozialdemokrata abiarazteko langileriaren baitan kontzientzia politikoa hedatu behar da, hezkuntza politikoaren bitartez. Hezkuntza honen mamiak ondokoa izan behar du: langileriak pairatzen duen zapalkuntzaren aurpegi bakoitzari – eta ez soilik zapalkuntza ekonomikoari– agitazioaren bidez erantzutea. Agitazio politiko hau sozialdemokraziak helburu argi batekin bideratuko du: gobernu autokratikoaren aurka indarrak metatzea, eta ez soilik gobernuari erreformak eta hobekuntzak exigitzea: “*subordinamos la lucha por las reformas como la parte al todo, a la lucha revolucionaria por la libertad y el socialismo*”. Agitazio politikoa, era berean, present egon behar da etenik gabe; sozialdemokraziak salaketa politiko etengabeak antolatu behar ditu. Horrela soilik lor daiteke masen baitan ekinbide iraultzailea txertatzea.

Honekin batera, ekonomismoa eta terrorismoaren arteko lotura azaltzen du Leninek. Biek erro bera dute: bat-batekotasunaren aldeko jarrera, nahiz eta talde bakoitzak borroka espontaneo desberdina defendatzen duen (ekonomistek *langile mugimenduaren bat-batekotasuna* eta terroristek, berriz, intelektualen haserrearen bat-batekotasuna). Leninek terrorismoaren aurka ere egiten du, borroka honek ez duelako balio langile mugimenduari bultzada emateko eta, finean, ezinegonaren ondorio bezala interpretatzen duelako. Bai terroristek eta bai ekonomistek ere masen indar iraultzailea gutxiesten dute. Helburuak lortzeko biderik eraginkorrena, beraz, agitazio politiko zabal eta etengabea da.

---

<sup>4</sup> Hasieran joera *kritiko* bezala deitu duguna.

<sup>5</sup> Argumentu honen inguruan behin eta berriz sakontzen du Leninek obra honetan zehar. Nahiz eta zenbait sektore sozialdemokratek borroka ekonomikoa defendatu, Leninentzat posizio hau politika sozialdemokrata tradeunionismora mugatzea baino ez da. “*La lucha económica es una lucha colectiva de los obreros contra los patronos por conseguir ventajosas condiciones de venta de la fuerza del trabajo, por mejorar las condiciones de trabajo y de vida de los obreros. Esta lucha es, por necesidad, una lucha sindical, porque las condiciones de trabajo son muy diferentes en los distintos oficios y, en consecuencia, la lucha orientada a mejorar estas condiciones tiene que sostenerse forzosamente por oficios*”.

Jarraian, langileriari jakintza politikoak emateko populuaren klase guztietara zuzentzea ezinbestekoa dela baieztatzen du Leninek. Hau da, klase kontzientzia politiko izateko, klase zein sektore guztiek Estatuarekin eta gobernuarekin duten harremana ezagutu behar da, eta ez soilik langileek patrioarekin dutena (horrela langileriaren baitan kontzientzia ekonomikoa baino ez baita hedatzen). Errealitatean, hala ere, talde sozialdemokratek ez dute planteamendu hau praktikan islatzen eta beraien eginkizuna borroka ekonomikora mugatzen dute. Honengatik, arlo desberdinetan beren jardura egokitu behar dute sozialdemokratek:

Klase eta sektore guztien azterketa burutu behar da eta gizarteko klase guztien baitan propaganda zein agitazio lanak burutu. Honekin batera, demokraziaren aldeko borrokan abangoardia papera bete behar du sozialdemokraziak, sektore desberdinak (*herri guztia*, finean) borroka horretara lotuz. *“Nosotros debemos asumir la tarea de organizar la lucha política, bajo la dirección de nuestro partido, en forma tan múltiple que todos los sectores de oposición puedan prestar, y presten de verdad, a esta lucha y a este partido la ayuda que puedan”*. Protesta agerraldi guztiak bide horretan zuzendu behar dira. Eta sozialdemokrazia benetako indar politiko bilakatzeko, ezinbestekoa da ere bai alderdiak herri guztiaren interesak defendatzea benetako abangoardia izaera bereganatuz. Honetarako, herri guztiaren aurrean salaketa politikoko kanpainak burutzea beharrezkoa da.

Leninek, segidan, ekonomismoak lotura hau ez duela ulertzen salatzen du, sozialdemokraziaren abangoardia izaera praktikan eragozten duelarik pentsamendu ekonomistak<sup>6</sup>.

**Laugarren kapitulu** (*El primitivismo en el trabajo de los economistas y la organización de los revolucionarios*) lehenik eta behin laneko primitibismoa zer den azaltzen da. Sozialdemokraziaren gaixotasun bat da laneko primitibismoa, jarduteko modu atzeratua dela eta (diskrezio eza, lan banaketa eza...), talde sozialdemokratak behin eta berriz poliziaren sarekaden jo-puntuan uzten dituen. Ondorioz,

---

<sup>6</sup> Ekonomismoak, sozialdemokraziaren borroka esparrua lantegiko arazoetara mugatuz, sozialdemokrata bezala jarduteari uko egiten dio: *“arrastran a la socialdemocracia a ‘la lucha económica contra los patronos y el gobierno’ y se rinden ante el liberalismo, renunciando a intervenir de manera activa en cada problema ‘liberal’ y a fijar frente a él su propia actitud, su actitud socialdemócrata”*.

sozialdemokraziaren borrokak ez du jarraipenik eta, beraz, ez du aurrerapenik lortzen. Leninen iritziz bai ekonomismoak eta bai joera terroristak ere, bat-batekotasuna defendatzen dutenez, laneko primitibismoa baino ez dakarte ondorio bezala. Honek guztiak sozialdemokraziaren jardueraren krisia suposatzen du; eta errudun nagusiak, Leninen aburuz, mugimenduaren buruzagiak dira, ez baitaude prest beraien funtzioa betetzeko.

Egoera ikusita, Leninek mugimendu sozialdemokrata zuzentzeko beharrezkotzat jotzen du iraultzaileen erakunde bat. Laneko primitibismo hori dela eta, mugimenduak iraultzaileen erakunde hau langileen erakundeekin nahastu ditu (borroka ekonomikoa bere eginbeharra egin duen bezala), baina biak oso gauza desberdina dira. Langileen erakundeak ondoko baldintzak bete behar dituzte: profesionalak izan, ahal den zabalena (kontzientzia minimo bat duen langile orok izango du berauetan parte hartzeko eskubidea) eta klandestinitatea ahal duten neurrian ekidin. Errusian sindikatu gehienak debekaturik daudenez, klandestinitatea eragoztezina izango bada ere, hau modurik *lasaienean* eramatea proposatzen du Leninek. Leninentzat langileen erakundeak borroka ekonomikora mugatu behar dira eta, beraz, sindikatuak izango dira.

Iraultzaileen erakundea, aldiz, langileriaren borroka askatzaile osoa zuzentzea helburu duen erakundea izango da, eta hau da sozialdemokratek behar dutena. Ezin da zabala izan (beraien artean konfiantza izango duten pertsoez osatutako gune txiki bat izango da soilik) eta ahal den eta klandestinoena izango da. Erakunde hauetako partaideak iraultzaile profesionalak izango dira, hau da, lanbide bezala alderdiaren eta iraultzaren alde lan egitea izango duten pertsonak, alderdiaren fondo ekonomikoetatik biziz. Iraultzaile profesional hauek gaitasun handiena erakusten duten militante sozialdemokratak izango dira.

Leninen ustez, iraultzaileen erakunde honek langile-borrokaren zuzendaritza funtzioa bete behar du eta ezinbestekoa da sozialdemokraziaren jardueraren jarraipena bermatzeko (eta, noski, jarduera hau indartzeko ere bai). *“La lucha espontánea del proletariado no se convertirá en su verdadera ‘lucha de clase’ mientras no esté dirigida por una fuerte organización de revolucionarios”*. Errusiako kasuari erreparatuz, gainera, oraindik beharrezkoagoa egiten da iraultzaile profesionalaren figura, polizia politikoari aurre egiteko gai izango den iraultzailea, hain zuzen.

Honekin batera, mugimendu iraultzailea espezializatzearen beharra planteatzen du Leninek (bestela indar iraultzaile ugari galdu egiten baita, laneko primitibismoan eroriz). Espezializazioak zentralizazioa dakar ondorioztat. Langile iraultzaileen baitan, beraz, hezkuntza lan handia garatu behar da, bereziki hezkuntza iraultzaile profesionala.

Antolaketa eredu honen aurrean, Leninek egin ohi diren bi kritika mota aipatzen ditu: Batetik, eredu honi konspiratzaileen erakundea deitzea (terrorismoaren taktikarekin konparatuz). Leninek argi uzten du ezin dela borroka iraultzailea konspirazio batera mugatu, baina honek ez du kentzen iraultzarako ezinbestekoa izatea iraultzaile profesionalen erakunde bat (Errusia bezalako herrialde autokratiko batean konspiratzaile erakunde itxura har badezake ere). Bestetik, eredu honi antidemokratikoa izatea egotzi izan zaio. Leninek gogor kritikatzan du *demokraziara jolasteko* asmo hau. Eraginik gabekoa da, praktikan inolako mugimendu iraultzaileak ezin izan baitu demokratikoki funtzionatu (hau da, hauteskundeak, estatutuak, etab. eginez); eta poliziaren sarekadak erraztea baino ez du suposatzen. Halaber, zenbait sektoretan indarra hartzen ari den asanblearismoa *utopismotzat* jotzen du.

Ondorioz, sozialdemokraziak behar duen zuzendarien erakundeak antolakuntzari dagokionez honako printzipioak jarraitu behar ditu Leninen hitzetan: “...*la más severa discreción conspirativa, la más rigurosa selección de los afiliados y la preparación de revolucionarios profesionales*”.

Bestalde, herri mailako eta nazio mailako borroken osagarritasuna aztertzen du Leninek. Bere ustez, biderik eraginkorrena iraultzaileak batuko dituen Errusia osoko erakunde bat sortzea da, horrela nazio mailako jardueraz gain, herri mailakoa ere indartuko delakoan (beste leku batzuetako taldeekiko harremanek, ildo berdinak izateak, etab.ek hirietako borroka isolatuak baino onura gehiago dituelako).

**Bosgarren kapituluan** (“*Plan*” de un periódico político central para toda Rusia) proiektu hau defendatzen du Leninek. Hau da, bere ustez ezinbestekoa da, alderdiaren eraginkortasunari begira, Errusia osora bideraturiko egunkari sendo bat



eratzea<sup>7</sup>. Organo politiko hau maiz agertzea eta eraginkortasunez banatzea azpimarratzen du. Egunkariak, gainera, alderdi politikoari batasuna emango lioke (batez ere hiri desberdinetako talde sozialdemokraten arteko komunikazioa erraztuz). Alderdiaren barnean, beraz, egiazko lotura amankomun bat sortuko litzateke. Honekin batera, egunkaria militanteen hezkuntza politikorako oso baliagarria izango litzateke. Leninentzat, hortaz, proiektu hau bereziki garrantzitsua da.

Azkenik, Leninek mugimendu sozialdemokrata armada batean bilakatu behar dela planteatzen du, langileen bat-bateko agerraldiak kontrolatu eta zuzentzeko gai izango den armada, alegia. Errusiako egoera aldakorra kontuan hartuz, egoera desberdin hauen aurrean erraz moldatzeko gaitasuna izan behar du erakunde iraultzaileak. Hau guztirako ezinbestekoa da Errusia osorako egunkari zentral bat.

**Ondorioei** dagokienez, Leninek liburu honetan ateratzen duen ondorio nagusia argia da: sozialdemokrazia errusiarrek bizi duen krisiaren aurrean, sektore oportunistak (kritika askatasuna aldarrikatzen dutenak eta, aldi berean, borroka sozialdemokrata ekonomismoaren bidez sindikalgintzara mugatzen dutenak, besteak beste) gainditu behar da, eta sozialdemokraziaren baitan indar bat sendotu eta definitiboki nagusitu behar da: benetako abangoardia iraultzailea (hau da, Leninek *¿Qué hacer?*-en zehar azaldutako tesiak defendatzen dituen sektorea). Beraz, *Zer egin?* Ba sektore oportunistak horrekin amaitu.

---

<sup>7</sup> Egunkari lokalak lehenestea Errusia osorako egunkariaren ordez gogor kritikatzeko du Leninek. Ezinezko ikusten du hiri guztietan langile egunkari bat sortzea, saiakera hutsetan gelditzen dira gehienetan egunkari lokal horiek (indar iraultzaile gehiegi suposatzen dute, gainera). Honekin batera, hiri mailako borrokez haratago ez litzateke inolako informaziorik emango, eta hau beharrezkoa da Leninen aburuz.

## **"LAS TESIS DE ABRIL"**

*Las tesis de Abril*<sup>8</sup> liburuan, Leninek zenbait tesi planteatzen ditu Errusiako Alderdi Sozialdemokrataren jarduera zuzendu asmoz. Leninek azaltzen du tesi hauek apirilaren 4an Petrogradon egin zen asanblean azaldu zuen txosten baten laburpena dela, eztabaida horretan defendatu zituen ideiak zabaltzeko. Horregatik, tesi hauek artikulua modura publikatu ziren *Pravda* egunkarian. Idatzi honetan hamar tesi nagusi azaltzen dira, guztiak sozialdemokraten jarduerari dagozkionak:

1. Gerraren aurrean sozialdemokraten jarrera argitu beharra planteatzen da. I. Mundu Gerra deituko zena, Leninentzat kapitalismoak sortutako inperialismoaren ondorio da eta, beraz, ikuspuntu sozialdemokrata batetik, ezin da inolako jokabide *defensistetan* erori, ezin da gerra inperialista horretan inolaz ere Errusiaren alde egin. Proletargoak gerra iraultzaile baten alde egiteko hiru baldintza bete behar dira: boterea proletargoaren eta nekazarien eskutara pasatzea, anexioei uko egitea eta kapitalisten interesei muzin egitea. Argi dago hiru baldintza hauek ez direla betetzen, gerra hori ez baita iraultzailea, inperialista baizik.

Leninentzat gerrari dagokionez propaganda indartu behar da, langile masaren zati handiak *defensismo iraultzaile*<sup>9</sup> horren alde egiten baitu. Propaganda honetan, gerrarekin bukatzeko bide bakarra kapitalismoaren suntsitzea dela argitu behar da. Propaganda hau, halaber, armadaren baitan hedatu behar da.

2. Anaitasuna. Errusian iraultza demokratikoa egin denez, burgesia boterean dago. Langile zein nekazari masek bere izaeraz kontzientzia hartu behar dute iraultzaren bigarren etapa (iraultza sozialista) egiteko. Egoera berria da, beraz: legaltasuna errespetatzen da, masen aukako bortizkeria inoiz baino txikiagoa da, proletargoak Gobernuan konfiantza du... Alderdiak bere burua egoera honetara egokitu beharko du, zuhurtasun handiagoz jokatu.

---

<sup>8</sup> LENIN, V.I., *Las tesis de Abril*, Akal, Madril 1976

<sup>9</sup>Ikuspuntu honen arabera, gogoz kontra bada ere gerra beharrezkoa da; ez dago beste irtenbiderik (nahiz eta anexioak gaitzetsi eta *bakea* eskatu). Leninen aburuz, jarrera hau hartzen dutenek, beraien klase interesei uko egin eta burgesiaren interesen alde egiten dute.

3. Iraultza demokratiko-burgesetik sortutako behin-behineko Gobernuari ez zaio laguntzarik eman behar. Bere promesak faltsuak direla azaldu behar da, bereziki gerra inperialistari dagokionean (anexioei uko egingo diela, etab.). Gobernu hori kapitalista eta inperialista da eta, beraz, sozialdemokratek ez dute bertan zer eginik.

4. Alderdi Sozialdemokratak onartu beharko du langileen sobiet-etan gutxiengo bat dela. Aitzitik, sobiet hauetan gehiengoa elementu burges-txikiek dute (Leninek oportunistak deitzen ditu, burgesiaren influentzia duten langile talde desberdinak: mentxevikeak, *sozialista* deitutako talde desberdinak...). Egoera honetan, sobietek jokatu beharreko papera azaldu behar zaie masei; hau da, sobietek gobernu iraultzailearen izaera hartu behar dute (kontrabotere eraginkor bat bihurtuz). Sobieten barnean gaur egun hauek betetzen duten paperari kritika egin behar du Alderdiak.

5. Planteamendu honekin jarraituz, Leninek errepublika parlamentario bat gaitzetsi eta sobietak indartzearen aldeko apustua egiten du. Sobieten errepublika bat defendatzen du Leninek, non Errusia osoko proletarioak, nekazaritza arloko peoiak eta nekazariak ordezkaturik egongo diren. Azpiko klase hauetatik sortutako gobernu defendatzen du, beraz. Honekin batera, polizia, armada eta burokraziaren deuseztapena eskatzen du Leninek, honen ordezkariak armatzea aldarrikatuz.

6. Nekazaritza arloari dagokionez, ondoko neurriak planteatzen ditu nekazaritza-programa bezala: Boterea ematea nekazaritza-peoien sobietei, lurjabeei lurrak kentzea, Errusia osoko lur guztien nazionalizazioa (lur hauek sobieten esku geldituz), nekazari pobreen sobiet bereziak sortzea, eta etxalde handiak sobieten eta komunitatearen esku egongo diren hazienda modeloak bilakatzea (nekazaritza-kooperatiba antzekoak sortuz).

7. Bankaren nazionalizazioa da beste tesi bat. Errusiako banku guztiak banku nazional bakar batean bilakatzea eta banku berri hau langile diputatuen sobieten kontrolpean gelditzea.

8. Leninek adierazten du, era berean, sozialdemokraten *lehen* eginbeharra ez dela sozialismoa ezartzea, ekoizpen eta banaketa baliabideak sobieten kontrolpean ezartzea baizik. Hau da, marxismoaren oinarrietan dagoen kontzeptu bat aplikatu

besterik ez du egiten puntu honetan ere (ekoizpen eta banaketa baliabideak langileriaren esku gelditzea, burgesiaren eskuetatik kenduz).

**9.** Leninen aburuz, Errusiako Langile-Alderdi Sozialdemokratak epe motzera ondoko eginbeharrak ditu: Kongresu bat burutzea lehenbailehen, alderdiaren programa politikoa berritzea eta alderdiaren izena aldatzea.

Programaren aldaketari dagokionez, hiru puntu azpimarratzen ditu Leninek: Lehenik, inperialismoa eta gerra inperialistaren aurrean izan beharreko jarrera zehaztea (lehen aipatu bezala, Leninen aburuz defensismotik urrun egon behar du eta burgesiaren interesetatik aldentuz proletargoaren eta, beraz, gerra iraultzaile baten alde eta gerra inperialista baten aurka egitea). Bigarrenik, Estatuarekiko izan beharreko jarrera eta Estatu-komunaren aldarria. Eta hirugarrenik, gutxieneko programaren aldaketa, zaharturik dagoelakoan.

Alderdiaren izen aldaketari dagokionez, *sozialdemokrataren ordez komunista* proposatzen du Leninek. Batetik, nazioarteko alderdi sozialdemokratetako agintari desberdinek, Leninen aburuz, sozialismoa traizionatu dutelako (gerraren aferan burgesiaren alde eginez eta defensismoa bultzatuz, besteak beste). Eta bestetik, Leninen helburua den Parisko Komunan oinarritutako Estatu-komunistaren ideiarekin hobeto datorrelako eta Marx eta Engelsen *Manifestu Komunista*-rekin bat datorrelako.

**10.** Azkenik, Leninek Internazional berri bat eratzearen beharra azaltzen du. Gerraren aferan jarrera defentsista (edota *sozialchovinista*<sup>10</sup>) jarraitu dutenen aurka egiteko eta benetako iraultzaileen indarrak metatzeko (defensistek eta “zentrokoek” bultzatutako jokabide burgesetatik urrun). Leninek, beraz, sozialdemokraziaren *benetako* indar iraultzaileak gainontzekoekin lotura organikorik ez mantentzeko apustu garbia egiten du.

---

<sup>10</sup> Bere burua sozialistatzat hartuz, langileriaren interesak eta internazionalismoa guztiz ahantziz, gerran beraien Estaturen interes propioen alde egiten dutenak.

